

SOLTE DAUDEN TXAKURRENTZAKO AISIALDI EREMU BERRIAK

Leioan, parke, lorategi eta berdegune ugari ditugu, eta horrek bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du. Aisialdi-gune horietan nagusiek eta umeek gozatzen dute, eta, lorezaintza eta garbiketa zerbitzuen lanari esker, leioaztarrek modu positiboan baloratzen dituzte inguru horiek. Eremu horietara paseoan eramaten dira txakurrak ere.

Hiri atseginagoa lortzeko bidean, eta oinezkoak eta animaliak errespetuz bizi daitezken elkarrekin, **Leioako Udalak txakurrak solte ibiltzeko 13 gune sortu ditu udalerrri osoko 10 auzotan, leioaztarren partaidetzarekin eginiko prozesu baten ondorioz.** Maskotak aske ibili ahal izango dira inguru horietan guztietan (betiere, jabeen kontrol eta zaintzapean). Zazpi gune 24 orduz erabili ahal izango dira, eta beste seiak, 20:00etatik 9:00etara bitarteko ordutegian.

Txakurrentzako gune berriok urtebetez egongo dira probaldian. Leioako Udalak zonalde horiek bai txakurrek eta bai oinezkoek ahalik eta ondoen gozatzea nahi du. Hori dela-eta, epealdi honetan emaitzak onak badira, guneak egonkortu egingo dira. Beraz, **alde bien kolaborazioa eskatzen dugu, eta gune horien mugak eta ordutegiak errespetatzea.**

Txakurrak solte ibiltzeko 13 guneek, guztira, 70.000 m²-ko gehiago azalera dute, Leioako parke desberdinen barruan. 24 orduko ordutegian, 39.600 m² daude erabilgarri, hauek: **Aldapa parkea, Artatza parkea, Elehalde parkea, Lamiako, Mendibile parkea, Pinosolo parkea eta Sarriena.** Eta ia 31.000 m² 20:00etatik 09:00etara bitarteko ordutegian: **Aldapa parkea, Artatza parkea, Handelazubieta parkea, Mendibile parkea, Ondiz parkea eta Zarragabarrena parkea.**

TXAKURRA BADAUKAZU, GOGOAN IZAN...

- Identifikatuta eta errolatuta izan behar duzu.
- Arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko, administrazio-lizentzia lortu behar da.
- Hiri-bide eta espazio publikoetan, bai eta higiezin kolektiboen alde komunetan ere, kontrolpean eta uhal batekin lotuta joan behar da. Uhala egokia izan behar da animalia-aren ezaugarrietarako.
- Zu zara txakurrak eragin ditzakeen min, kalte edo eragozpenen erantzulea.

ERRESPETATU ANIMALIAK EDUKITZEARI BURUZKO ORDENANTZA

Leioako kaleak eta lorategiak leku publikoak dira, guztion gozamenerako tokiak.

ONDO PASATU ZURE MASKOTAREKIN

TXAKURREN AISIALDIRAKO EREMU BERRIAK

LEIOAKO PARKE DESBERDINETAN BANATZEN DA 70.000 M² BAINO GEHIAGOKO AZALERA HAU



KALEETAN ETA LORATEGIETAN, JASO ITZAZU ZURE TXAKURRAREN GOROTZAK



Udal ordenantza

